

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2016-17 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso 2016-17

ikastetxea: <i>centro:</i>	IES URIBE-KOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	Batxiergoa / DBHO	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	2.
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	Espainia eta Euskal Herriko Geografia		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	Historia, Ekonomia, IKT, Hizkuntza eta Filosofiarekin erlazionatuta dago.		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares</i> <i>básicas asociadas</i>	- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia - Ekimenerako konpetentzia		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Txema Ezenarro Maguregi	ikasturtea: <i>curso:</i>	2016/17

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.
5. Norbera izaten eta ikasteko konpetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<p>Geografiako ikasgaiaren helburuak honako hauek dira etapa honetan:</p> <p>1.- Euskadiko eta Espainiako eremu geografikoaren aniztasuna prozesu natural, sozial, ekonomiko, teknologiko eta kulturalen interakzioa ulertzeko eremu dinamiko gisa aztertu eta azaltzea, eta denbora-esparru natural aldakor batean aztertzea.</p> <p>2.- Lurraldearen antolamenduaren oinarriko elementuak identifikatu eta ulertzea Espainia eta Europar Batasuna osatzen dituzten lurraldeen artean dauden loturak ulertzeko, hurbileko eta urruneko eremuen inguruko jakintza, estimazio eta lankidetzarako jarrerak garatzea, aurreiritziak gainditzea eta elkartasunez jokatzeko.</p> <p>3.- Ingurune naturalaren ezaugarri orokorrak zein diren jakitea Espainian eta Euskadin dauden paisaia naturalak ezagutzeko, paisaia horien elementuak eta dinamika identifikatzea, haien interakzioa azaltzea eta gizakiaren ekintzak paisaia horietan betetzen duen zeregina balioestea.</p> <p>4.- Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, dinamika eta egitura deskribatzea biztanleria espazio geografikoaren eraldaketa-mailaren funtsezko faktorea dela ulertzeko, eta, horretarako, desberdintasun ekonomikoaren, biztanleriaren banaketaren, migrazio-mugimenduen edo biztanleriaren zahartzearen prozesu historikoak, arrazoiak eta ondorioak azaltzea.</p>	<p>1.- Ea askotariko iturrietatik (ikasleen ingurunea, kartografiak, estatistikak, testu eta irudiak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) eduki geografikoko informazioa ateratzen, hautatzen eta erabiltzen duen lurralde-fenomenoak eta fenomeno horien arteko loturak kokatu eta interpretatzeko, eta ea hiztegi espezifikorik erabiltzen duen gertakari eta prozesu geografikoak azaldu eta jakinarazten dituen.</p> <p>2.- Ea Europar Batasuneko sistemaren eta horren eraikuntzaren etapa nagusien ezaugarriak identifikatzen dituen, Europar Batasuneko erakundeak eta haien funtzionamendua ezagutzen dituen eta bertako politika sozioekonomikoaren ondorio espazialak kritikoki balioesten dituen.</p> <p>3.- Ea ingurune naturalaren ezaugarri orokorrak zein diren ba ote dakien, Espainian eta Euskadin dauden multzo naturalak ezagutzen dituen, multzo horiek mapan aurkitzen dituen, bertako elementuak eta dinamika identifikatzen dituen, haien interakzioak azaltzen dituen eta gizakiaren ekintzak betetzen duen zeregina balioesten duen.</p> <p>4.- Ea jarduera ekonomikoak eta haiek eragiten dituzten eraldaketak aztertzen dituen, ingurunearen eta giza taldeen arteko erlazioa, giza talde horien kokapen-faktoreak eta banaketa ezagutzen dituen, egungo joerak azaltzen dituen eta joera horiek beren Europako testuinguruan balioesten dituen.</p>

5.- Populatze motak bereiztea, Espainiako eta Euskadiko urbanizazio-prozesua ulertzea eta faktore horiek industriaren eta zerbitzuen kokapenarekin lotzea, dauden paisaia desberdinak, biztanleria-dentsitate desberdinak eta aberastasunaren garapen eta banaketa desberdina ulertzeko.

6.- Hirien morfologiaren eta funtzioen (bizitegi-funtzioa, industria-funtzioa, administrazio-funtzioa eta merkataritza-funtzioa) oinarrizko alderdiak eta hiri-espazioan duten banaketa ezagutu eta identifikatzea eraldaketa-faktoreak eta sortzen diren ingurumen-arazoak ulertzeko, eta, horretarako, hainbat iturri erabili eta interpretatzea, hala nola hiri-planoak, aireko argazkiak eta askotariko iturri dokumentalak.

7.- Jarduera ekonomikoak eta haien azken aldiko bilakaera eta kokapen-faktoreak aztertzea eta ingurunearen eta hori okupatzen duten giza taldeen arteko lotura ezagutzea, biztanleriaren egungo banaketa eta horren ingurumen-ondorioak ulertzeko.

8.- Naturako baliabideak ustiatzeko egungo eredia aztertzea eta horrek sortzen dituen ingurumen-arazoez eta gizarte-arazoez jabetzea, maila globalean pentsatu eta toki-mailan jarduteko, betiere zuhertasun, eraginkortasun eta elkartasunez.

5.- Ea giza ekintzek ingurumenean dituzten inpaktu nagusiak identifikatu eta aurkitzen dituen, inpaktu horiek beren arazoiekin eta osasunean dituzten ondorioekin erlazionatzen dituen, eta mundu-eskalako ikuspegi global bat erabiltzen duen. Eta, era berean, ea leheneratzeari eta kontserbazioari lotuta hainbat eskalatan (tokiko eskalan, Autonomia Erkidegoan, Estatuan, Europan eta munduan) planteatzen diren konpromisoak eta politikak ezagutzen dituen.

6.- Ea biztanleria funtsezko faktore gisa ulertzen duen (izan ere, biztanleriaren banaketak, dinamikak eta egiturak eragin garrantzitsua dute espazioa osatzeko prozesuetan). Eta, era berean, ea desberdintasun ekonomikoaren, biztanleriaren banaketa desberdinaren, migrazio-mugimenduen edo biztanleriaren zahartzearen arazoak eta ondorioak azaltzen dituen.

7.- Ea populatze motak bereizten dituen. Espainiako urbanizazio-prozesua lurraldea hiri-sistemaren konfigurazioaren bitartez antolatzeko modu gisa interpretatzen duen. Eta, era berean, hirien morfologiaren eta funtzioen oinarrizko alderdiak eta hiri-espazioan duten banaketa ezagutzen eta identifikatzen dituen.

8.- Ea Euskadiko eta Espainiako antolamendu politiko eta administratiboaren oinarrizko elementuak deskribatzen dituen, autonomia-erkidegoetan eta haietako batzuen barruan aberastasunaren banaketari dagokionez dauden kontrasteak hainbat iturri eta adierazle erabiltzearen bidez balioesten dituen, eta Espainian eta Europan eskualdeak garatu eta kohesionatzeko garatutako politiken adibideak ematen dituen.

9.- Elkarrekiko erlazioan oinarritutako mundu honetan Espainiak eta Euskadik duten posizioa eta Estatuko lurraldeen arteko erlazioak azaltzea eta datu ekonomiko eta demografikoak aztertzea, aldi berean ekonomia uniformizatzeko prozesuak eta desberdintasun ekonomikoko prozesuak daudela ulertzeko.

10.- Dauden gizarte- eta espazio-errealitatez jabetzea lurraldearen antolamenduarekin zerikusia duten erabakietan era aktibo eta arduratsuan parte hartzeko, eta oreka naturala eta gizarte-ekitatea sustatzeko beharra balioestea.

11.- Fenomeno geografiko konplexuak hainbat ikuspegitatik ulertzea (generoaren ikuspegitik, adibidez), eta analisi multi kausalak egitea, egungo gizarteak dituen arazoak ulertzeko.

12.- Informazioa bilatzeko askotariko iturri eta teknika geografikoak erabiltzea, informazio hori ongi antolatutako azalpen-testu koherenteen bidez helaraztea, eta terminologia egokia erabiltzea.

9.- Ea espazio edo gai jakin bati buruzko ingurunerako irteera, landa-lan edo ikerketa-lanen bat planifikatzen duen, beharrezkoa den informazioa biltzen duen eta ondorioak ahoz, txosten baten bidez, formatu digitaleko komunikazio baten bidez eta hiztegi geografiko egokia erabiliz aurkezten dituen.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje].

1. Edukien denboralizazioa:

Curriculum hau honako eduki multzo hauetan antolatuta dago:

1. multzoa. Ikasgai guztietan eta ikasgai honen multzo guztietan komunak diren edukiak
2. multzoa. Lurraldea antolatzeko moduak. Espazio geografikoaren batasuna eta aniztasuna
3. multzoa. Dinamika eko-geografikoak.
4. multzoa. Biztanleria, hiri-sistema eta eskualde-contrasteak.
5. multzoa. Espazio geografikoa eta jarduera ekonomikoak.

Lehen eduki multzoan, gainerako multzoetan komunak diren edukiak daude jasota, multzo guztietan agertzen diren prozedurazko eta jarrerazko edukiak biltzen baitira.

Bigarren eduki multzoan, berriz, Estatuko antolamendu politiko-administratiboaren oinarriko elementuak eta Espainiako eta Europar Batasuneko lurraldeen arteko erlazioak, globalizazio-prozesuak eta munduan duten posizio erlatiboa biltzen dira.

Hirugarren multzoan, Espainiako eta Euskadiko espazio eta paisaien bereizgarri diren dinamika ekogeografikoak aztertzen dira. Horrela, beraz, ingurune naturaleko elementuak (erliebea, klima, landaredia, lurzoruak eta ur kontinentalak), naturaren eta gizartearen arteko interakzioa, eta faktore politiko, sozioekonomiko, tekniko eta kulturalak paisaien eta, oro har, espazio geografikoen konfigurazio eta eraldaketan betetzen duten zeregina aztertzen dira.

Laugarren eduki multzoan Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren dinamika, egitura, banaketa eta arazoak aztertzen dira. Ildo horretan, biztanleriaren banaketa, migrazio-mugimenduen egungo egoera eta etorkizunerako perspektibak, langabezia, biztanleriaren zahartzea, espazio-desorekak eta abar azaltzen dira. Halaber, populatze motak aztertzen dira (hiri-populatzea eta landa-populatzea).

Azkenik, bostgarren eduki multzoan, sektore ekonomikoak eta azken hamarkadetan hainbat faktore direla-eta (aurrerapen teknologikoak, merkatuen globalizazioa, komunikazio-azpiegituren hobekuntza eta eskualdeetako, Estatuko eta Estatuaz gaindiko jardun-politikak) izan diren berregituratze-prozesuak aztertzen dira.

1. EBALUAZIOA

1. Inguru naturala Espainian eta Euskadin: Erliebea eta mapak. (14 ordu)
2. Inguru naturala Espainian eta Euskadin: Klima-dibertsitatea. Klimogramak. (10 ordu)
3. Inguru naturala Espainian eta Euskadin: Hidrografia eta landaredia. (9 ordu)
4. Testuinguru geopolitikoa: Espainia Europar Batasunean. (5 ordu)

2. EBALUAZIOA

5. Testuinguru geopolitikoa: Espainia eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren antolamendua eta kokapena. (5 ordu)
6. Uraren arazoa eta ingurumen arazo nagusiak. (10 ordu)
7. Espainia eta Euskal Herriko biztanleria, banaketa eta desorekak. Adin piramideak. (14 ordu)
8. Espainia eta Euskal Herriko Hiri sistema. Hirigintza prozesuen sintesia. Planoak (12 ordu)

3. EBALUAZIOA

Jarduera ekonomikoak:

9. Lehen sektoreko espazioak: Espainia eta Euskadin. (14 ordu)
10. Industria-espazioak: Espainian eta Euskadin. (14 ordu)
11. Espainia eta Euskadiko Zerbitzuak. (12 ordu)

ARAZO-EGOERA

- ALDAKETA KLIMATIKOA
- HELBURUA: -ALDAKETA HAU ZERGATIK GERTATZEN ARI DEN OHARTZEA.
-ZEINTZUK DIREN ARRISKUAK ULERTZEA.
-ARAZO HAU SOLUZIONATZEKO EMAN DIREN PAUSUAK JAKITEA ETA
AZTERTZEA
- METODOLOGIA: -ALDAKETA KLIMATIKOARI BURUZKO BI DOKUMENTALA IKUSI:
 - Planeta Lurra gurutzebidean: Ura
 - 90. hamarkadako umeak. Rio de Janeiroko Konferentzia 1992an.
 - APUNTEAK HARTU ETA INFORMAZIOA BILATU INTERNETEZ RIO DE JANEIROKO KONFERENTZIATIK HONA EMAN DIREN BILERAK ETA HARTU DIREN NEURRI ZUZENTZAILEAK.
 - LAN MONOGRAFIKOA BURUTU BINAKA.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado desde una perspectiva inclusiva].

2. Irakaste-prozesuan erabiltzen den metodologia.

- Egutero gai teorikoak eta prozedura ariketak landuko dira, liburua edota irakasleak prestatutako materialaren bidez.
- Gaiari lotuta dauden ariketak astean behin bidaliko dira, eta klase hasieran zuzendu.
- Gai berria hasten denean, lehenengo, Informatika gelara joango dira, oinarritzko kontzeptuak bilatzeko Internetez, bereziki selektibitatean sartzen dena.
- Saio berezietan eduki konkretuei buruzko bideoak, DVDak edo TIC baliabideak erabiliko dira.
- Gai guztien amaieran birpasatzeko ariketa bereziak burutuko dira (selektibitateko prestatuak direnak).
- Ikasleek lan puntualak entregatu beharko dituzte (eskemak, taulak, iruzkinak eta mapen iruzkinak, Power Pointak) nota igotzeko eta, batez ere, ikasgaiaren ulermenean laguntzeko.

3. Baliabideak:

3.1 Baliabide analogikoak:

- Testu liburua “Batxilergo 2 Geografia” erabiliko da gida moduan. Anaya Haritza.
- Geografia fisikoan: mapak, grafikoak eta bestelako irudiak ikasleek betetzeko fitxa moduan.
- Giza Geografian: egunkarietan eta aldizkarietan bildutako artikulua sorta, gaiak hornitzeko eta gaurkotzeko ezinbestekoak direnak.
- Demografian beharrezkoak diren grafikoak, biztanleriaren piramideak, dentsitate mapak, etab..
- Hirigintzan, Euskadiko hiriburuen plano ezberdinak eta bereziki Bilbokoa bere bilakaera ulertzeko.
- Sektore ekonomikoen grafikoak eta mapak.

3.2 Baliabide digitalak

- Irakasleak egindako Power Pointak.
- Institutoko IKT baliabideak: gelako ordenagailua zein kañoia erabiliko dira.
- Google apps-ek eskainitako tresnak: drive, calendar, e-mailak
- Euskalmet. www.euskalmet.euskadi.eus
- www.eustat.eus
- Slide share. es.slideshare.net

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portafolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>-Hasierako froga bat burutu dugu hurrengo urteetarako. Test egiturakoa. Horrela ebaluatuko da ikasleen bilakaera.</p> <p>-Ebaluazioa ez da jarraia izango eta berreskurapenak egingo dira eduki kontzeptuak eta prozedurazkoak gainditu ahal izateko.</p> <p>Proba idatziak honako egitura izango du: Selektibitateko egitura jarraituko da, hots: hiztegia, teoriako galdera bat eta praktikazko beste bat.</p> <p>Eduki kontzeptualak: termino geografikoak definitzea: 2 puntu gai orokorrak garatu: 4 puntu Eduki prozedimentalak: Mapa, grafikoa, klimograma edo adin-piramidea ondo iruzkindu: 4 puntu</p> <p>Bi azterketez gain, ikasleak hainbat lan (testu, grafiko, maparen iruzkin) ekoiztu beharko ditu. Derrigorrezkoak dira eta jakintzagaia gaitzetzeko ezinbestekoak. Ikasleak aurkezteko epea errespetatu behar du.</p> <p>Kurtsoaren ebaluazio bakoitzean lan bat burutuko dute taldeka. Lan hauek ebaluazio bakoitzeko notaren %10 balioko dute.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleen eguneroko lana eta aldizkako lanak notaren %10 arekin baloratuko dira. - Froga objetiboak % 90a balioko dute. -Azterketa idatzia:%80a -Ebaluazioko lan monografikoa:%10a - Kontutan hartzeko: Huts egiteek, hots, justifikatu gabeko etortze faltak %20ra heltzen badira, ikasleak galduko du ebaluazio jarraia izateko eskubidea. Baina etor daiteke berreskurapenetara. <p>Kalifikazio irizpideak: -Ezagutza maila -Kontzeptuen argitasuna -Idazkeraren heldutasuna eta zuzentasuna -Mapak, taulak edo grafikoen iruzkina alde teorikoarekin erlazionatzea. -Kartografiako kokapen zuzenak egitea. -Faktoreak eta elementuak sailkatzeko gaitasuna. -Loturak eta elkarketak egiteko gaitasuna.</p>

<ol style="list-style-type: none">1. Ebaluazioan: Aldaketa klimatikoari buruz2. Ebaluazioan: Bilboko bilakaerari buruz3. Ebaluazioan: Turismoari buruz.	
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación].</p>	
<ul style="list-style-type: none">- Irakasgaia gaitzeko 3 ebaluaketak gaitzituak izatea beharrezkoa izango da. Ebaluaketa bakoitzean, azterketa bat baino gehiago egingo dira eta gero batez bestekoa egingo da. Baina hori egiteko gutxienez 4 bat eskuratu behar da aurreko azterketan, hots, 3 ateratzekotan nahiz eta beste azterketan 7 bat atera, ez da egingo bataz bestekoa. Eta bi azterketetan 4 bat eskuratzen bada ere ez da egingo bataz bestekoa eta bion berreskurapena egin beharko.- Azterketa gaitzeko, ezin da galdera bat utzi erantzun barik.- Ebaluazioa ez bada gaitzitzen, berreskurapenerako azterketa egiteko aukera egongo da ebaluaketaren ostean.- Gaitzitu ez dutenentzat Nahikotasun froga dago eta geroago Ez-ohiko froga bat (kurtsoaren amaieran Ohiko azterketan berreskuratu ez duen ebaluazioaren bat egin ahal du. Ez Ohiko frogan berriz, materia osoa berreskuratu beharko du).	

OHARRAK / **OBSERVACIONES**

--